Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

HERRIZAINGO SAILA

2319

EBAZPENA, 2010eko apirilaren 14koa, Herrizaingo Saileko Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearena, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Goi-Kargudunaren idazkari lanpostua izendapen askearen sistema erabiliz betetzeko deialdia ebazten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c artikuluari jarraiki eta 10.1.c artikuluak ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Herrizaingo Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko eta Babes Zibileko Goi-Kargudunaren Zuzendaritzako idazkari izateko, Domingo Abad Pinedo jauna izendatzea. Kodea: 520010, dotazioa: 44.

Bigarrena.– Izendapen horrek 2010eko apirilaren 22tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Herrizaingoko sailburuaren aurrean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 14a.

Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordea,
ERNESTO MARTÍNEZ DE LA HIDALGA LÓPEZ.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

2319

RESOLUCIÓN de 14 de abril de 2010, del Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Interior, por la que se resuelve la convocatoria para la provisión, por el sistema de libre designación, de la plaza de Secretaria de Alto Cargo de la Dirección de Atención de Emergencias y Protección Civil del Departamento de Interior.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 46.2.c) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca y en uso de las atribuciones conferidas por el artículo 10.1.c) de esta misma Ley

DISPONGO:

Primero.– Designar a D. Domingo Abad Pinedo Secretario de Alto Cargo, código 520010, dotación 44, de la Dirección de Atención de Emergencias y Protección Civil del Departamento de Interior.

Segundo.– La presente Resolución surtirá efectos a partir del día 22 de abril de 2010.

Tercero.– Contra la presente Resolución, podrá interponerse recurso de alzada ante el Consejero de Interior en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de abril de 2010.

El Viceconsejero de Administración y Servicios,
ERNESTO MARTÍNEZ DE LA HIDALGA LÓPEZ.